

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

C.A. Osasuna taldeko jokalariek NOGen ospitaleratuta dauden neska-mutilak bisitatu dituzte

Klubaren koloreak dituzten jostailak, posterrak, bufandak, motxilak eta kirol materiala banatu dizkiete

Asteazkena, 2019.eko urtarrilak 2

Nafarroako Ospitale gunean dauden neska-mutilek Osasuna taldeko zenbait jokalaria, beterano eta goi-kardudunen bisita izan dute asteazken honetan, Eguberrietako festetan ezarritako tradizioari jarraiki.


Hauexek dira ospitalera joan diren jokalaria: Luis Perea, Aridane Hernández, Carlos Clerc, Oier Sanjurjo eta Manuel Castellano "Lillo", gizonezkoen talde nagusikoak, eta María Celigueta, Josune Urdaniz, Lidia Alen eta Mainer Irisarri, nesken taldekoak. Horiekin batera, Luis Sabalza lehendakaria eta klubeko zuzendaritzako kide diren Fidel Medrano, Txuma Iso eta César Muniáin bertaratu dira, Lucrecio Luquin, José Manuel Ubani, Ángel López eta Miguel Arenaza jokalaria ohiekin batera. Ondo-ondoan izan dute une oro Gorritxo, taldearen maskota.

13:00ak aldera hasitako bisitaldian, jokalariai NOGeko hurren 4. eta 5. solairuetan izan dira, ospitaleratuta dauden neska-mutilekin solasean, autografoak sinatzen eta pazienteentzako jostailuak eta kirol materiala banatzen. Horrekin batera, lehenbailehen senda daitezela desiratu diete.



C.A. Osasuna taldeko zenbait jokalaria, beterano eta goi-kardudunak, maskotarekin, NOGen Unitate Pediatrikoko sarreran, ospitaleko langileekin batera

Galería de fotos



Osasuna taldeko Luis Perea, Lillo, Lidia Alén eta María Celigueta langileek Hugo umeari opariak eman dizkiote



Osasuna taldeko Aridane, Clerc, Oier Sanjurjo, Josune Urdániz eta Mainer Irisarri langileek Yasin umeari opariak eman dizkiote